



Kaixo:

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideak gara. Dakizuen moduan gure helburua Saharar Herriarekiko elkartasuna da.

Gure elkarteak 23 urte daramatza deserrian dagoen herri sahararrari laguntzen, babesten eta ahal duen neurrian bere bidelagun izaten. Lan hori ezinezkoa izango litzateke Tolosaldeako biztanleen laguntzarik gabe. Zuek zarete sostengu, zuek zarete lagun eta elkartasuna zorionez Tolosaldean badago.

Urtero data hauetan zuekin kontaktuan jartzen gara lerro zume batzuek bidez, saharar herria 1975etik zatiturik aurkitzen dela adieraziz. Batzuk saharar errefuxiatu kanpamentuetan biziraun dira (hemen biziraun izateko kanpo-laguntza behar-beharrezkoa da), beste batzuk lurralde okupatuan (Marokoko erregimenak okupaturik duen Mendebaldeko Saharan bizirautean duten sahararrak elkartasun politikoa behar dute) eta beste batzuk lurralde askatuetan (Frente POLISARIOaren eskuetan dagoen lur zatian). Ezin ahaztu ditzakegu diasporan bizi diren sahararrak ere.

Gure elkarteak saharar herritarren egoeraren difusioan laguntzen dugu, babes politikoa ere eskaintzen diegu eta errefuxiatu kanpamentuetan biziraun duten sahararrei laguntza bidaltzen diegu.

Bi urtetik behin kamioi bat bidaltzen dugu Tolosaldeatik eta bertan eskatzen diguten laguntza bidaltzen dugu.

Urtarrilak 18tik otsailak 2arte BILKETA egingo dugu Tolosaldean, eta zuen laguntza behar dugu kamioia ahalik eta beteen joan dadin.

Itzela litzateke, Tolosaldeako biztanle bakoitzak kilo bat ematea! Horretarako ikastetxeetan, kultur-etxeetan, udaletxeetan.... bilketa txokoak jartzen gabiltza eta zorionez zure herria laguntzeko prest azaldu da eta bertan bilketa txokoa izango dugu.

Hauek izango dira bilduko diren gauzak: lekaleak, hegaluzea eta sardiñak oliotan, pasta, arroza, azukrea, olioak, konpresak, haurrentzat eta helduentzako pixaohialak eta eskola materiala.

Aldez aurretik eskerrik asko!!

Tolosaldea Sahararekin elkartea